

## ERA GURASO ESKOLAREN III. EDIZIOA INTERNETEN DAGOENeko IKUSGAI

Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuak eta Nafarroako zenbait toki entitatek eskolan euskara (A, B edo D ereduan) ikasten duten haurren familientzako ERA GURASO ESKOLA ekimena abiatu zuten 2020an.

ERA GURASO ESKOLAK, adituen bidez, hazkuntza, euskara, elebitasun goiztiarra eta heziketa gaiak jorratzen ditu eta internetez familiei eskaintzen dizkie haurren euskararen ikas-prozesuan laguntzeko material baliagarri gerta dakien.

2023an, ERA GURASO ESKOLAREN hirugarren edizioan, Kike Amonarriz, Amelia Barquín eta Nerea Permach adituek honako gai hauek landu dituzte: kulturartekotasuna euskarazko hezkuntzan, nola sustatu euskara nerabegarorako trantsizioan eta gurasoen hizkuntza portaeren ereduagarritasuna.

Gurasoei zuzendutako saio hauek euskaraz eta gaztelaniaz daude ikusgai eta entzungai (aurten lehenengoz Spotify aplikazioan), euskaraz dakiten gurasoei eta ez dakitenei informazio egokitua, baliabideak eta aholkuak emateko:

Era.eus euskaraz: <https://eranafarroa.eus/> / Era.eus en castellano: <https://eranafarroa.eus/es/>

Era Nafarroa YouTube kanala: / Canal de YouTube Era Nafarroa: [www.youtube.com/c/EraNafarroa](http://www.youtube.com/c/EraNafarroa)

III. Era Eskolak [euskaraz](#) / Era Eskola III edición en [castellano](#)

Podcastak (Spotify) [euskaraz](#) / Pódcast (Spotify) en [castellano](#)

## La III edición de ERA GURASO ESKOLA ya está disponible en internet

Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera y varias entidades locales de Navarra iniciaron en 2020 el proyecto ERA GURASO ESKOLA, Escuela de Madres y Padres dirigida a las familias cuyas niñas y niños aprenden euskera en la escuela (en el modelo A, B o D).

ERA GURASO ESKOLA trata, mediante personas expertas, temas referentes a la crianza, el euskera, el bilingüismo temprano y la educación, y las ofrece en internet a las familias para que sea un material de ayuda en el proceso de aprendizaje infantil del euskera.

En 2023, en la tercera edición de ERA GURASO ESKOLA, los expertos Kike Amonarriz, Amelia Barquín y Nerea Permach nos hablarán de la interculturalidad en la educación en euskera, el fomento del euskera en la transición a la adolescencia y la ejemplaridad de los comportamientos lingüísticos de los padres/madres.

Estas sesiones dirigidas a las familias pueden verse y escucharse (este año por primera vez también en Spotify), tanto en euskera como en castellano, y su objetivo es ofrecer información, recursos y consejos a los padres y madres que saben euskera y a los que no lo saben:

ERA ESKOLAKO saioek interaktiboak izan nahi dute, beraz, ikusleek kontsultarik egin nahi izanez gero, YouTube kanaleko mintzaldien bideoetan iruzkinak egin ditzakete, eta ondoko egunetan Euskarabideko edo toki entitateetako euskara zerbitzuetako teknikariek erantzuna emanen dute.

ERA ESKOLAREN [hiru edizioak](#) era.eus webgunearen Baliabideen atalean daude ikusgai, Gurasoentzako Aholkuak azpiatalean.

Iruñean, 2024ko ilbeltza.

Las sesiones de ERA ESKOLA pretenden ser interactivas, por lo que, pueden hacerse comentarios o consultas en los vídeos de las sesiones del canal YouTube, y posteriormente el personal técnico de Euskarabidea o de las entidades locales las responderán.

Las [tres ediciones](#) de ERA ESKOLA pueden consultarse en el apartado de Recursos de la web era.eus, en la subsección Consejos para padres y madres.

En Pamplona, enero de 2024.

Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutua / Instituto Navarro del Euskera

Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua / Servicio de Planificación y Promoción del Euskera